INDUSTRIA IRAULTZA (5.zatia)

Industrializazioa eta biztanleria

Adierazi esaldi bakoitza okerra ala zuzena den:

- Industria Iraultzaren eraginez, nekazariak hirira joan ziren lan bila

  (1)……..

- XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran ozeanoz haraindiko migrazioak egin ziren.

  2)……..

- XIX. mendean, Europako biztanleriaren hazkundea bizkortu egin zen.

  (3)……..

- Biztanleria hazi egin zen XIX. Mendean, bestak beste, jaiotza-tasa igo egin zelako.

  (4)……..

- XIX. mendean, jaiotza-tasa jaitsi egin zen Europan.

  (5)……..

Klase-gizartea

Idatzi esaldi bakoitzaren ondoan dagokiona: aristokrazia ala burgesia

- Goi-mailako beste klasearen luxuzko bizimodua imitatu nahi zuen, eta garrantzi handia ematen zien itxurei eta balioei. **(6)**……..
- Nekazarien gain zituen eskubideak kendu zitzaizkion, eta zergak ordaintzen hasi zen. **(7)**……..
- Hiria bizi zen, zabalguneko auzo berrietan. **(8)**……..
- Gizarte industrial berriko klase boteretsua bihurtu zen. **(9)**……..
- Administrazioko, armadako eta diplomaziako posturik prestigiotsuenak zituen. **(10)**……..

Bete hurrengo hutsuneak aukeratzen azpian dagoen taulatik:

Erdi-mailako klasea edo behe-**(11)**…….. talde **(12)**…….. bat zen, era askotako jendea hartzen baitzuen barnean: maisuak, eskulangileak, irakasleak…Haien balio nagusiak **(13)**…….. eta **(14)**…….. ziren, ondarea eduki nahi baitzuten. Hezkuntzari ere balioa ematen zioten era iritzi politiko **(15)**…….. eduki ohi zituzten.

Behe-mailako klasean, gehienak, **(16)**…….. ziren. Europako iparraldean eta mendebaldean, asko **(17)**…….. ziren; kontinenteko hegoaldean, berriz, asko **(18)**…….. ziren eta latifundioetan lan egiten zuten. Europako erdialdean eta ekialdean, nekazariek **(19)**…….. izaten jarraitu zuten, XIX. mendearen erdialdera arte. Industria Iraultzarekin, **(20)**…….. agertu zen. Langileek **(21)**…….. gutxi eskatzen zuten lanak egiten zituzten, lanaldi luzez. **(22)**…… …….. ere klase herritarrekoak ziren. Mirabeek oso soldata **(23)**…….. kobratzen zuten eta enplegatzen zituzten familien ganbaretan bizi ziren.

jabeak	heterogeneo	moderatuak	nekazariak	baxua
jornalariak	burgesia	proletariotza	jopu	lana
prestakuntza	Etxeko zerbitzariak	aurreztea		